

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresan behar ditugun baliabideak :

- Langile kopurua

Langileen plantilla dokumentu bat da eta bertan sistematikoki zerrendatzen eta antolatzen dira gure enpresako langileak. Dokumentu horretan, konpainian funtzio bat beteko duten aldi baterako langile finko guztiak jasotzen dira, dagozkien kargu eta soldatekin. Beharrezkoa izango da erloju mota horien diseinuan, garapenean, produkzioan eta merkaturatzean espezializatutako lantalde bat izatea. Gure enpresa handia denez, ingeniariak, diseinatzaileak, teknikariak eta administrariak behar ditugu . Hainbat sailek osatzen dute. 50 langileko lantaldea dugu, honako lanpostu hauetan:

-Gerente nagusia

-Ikerketa eta garapen saila: ingeniariak eta diseinatzaileak osatua.

-Salmenta eta marketin saila: sustatzeko eta saltzeko arduraduna.

-Ekoizpen-saila: fabrikazioaren eta mihizatzearen arduraduna.

-Bezeroaren arretarako saila: erabiltzaileei euskarri teknikoa eta bezeroarentzako arreta eskaintzeaz arduratzen da.

- Materialak: Erlojuak ekoizteko beharrezkoak diren materialak erosi beharko dira. Horrek osagai elektronikoak, karkasarako materialak, bateriak eta abar barne har ditzake.
- Iraupen luzeko aktibo finkoak: Erloju horiek ekoizteko, enpresak, besteak beste, makinak, konputazio-ekipoak, software espezializatua eta probetarako gailuak behar izan ditzake.
- Iraupen laburreko aktibo finkoak: bulegoko materialak, altzariak, erremintak eta enpresaren funtzionamendurako beharrezkoa den beste edozein elementu ere erosi beharko litzateke.